

EXTRACTO DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS EN EL PLENO ORDINARIO N° 3/20 DE 24 DE SEPTIEMBRE DE 2020.

ACTA

1.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR EXTRAORDINARIA N° 4/20 DE 15 DE JULIO DE 2020.

[...]

Se ratifica por unanimidad de los asistentes, el Acta de la Sesión anterior Extraordinaria n° 4/20 de 15 de julio de 20, sin ninguna rectificación.

PARTE RESOLUTIVA.

2.-APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2019 Y DAR CUENTA DEL INFORME ANUAL DE LA INTERVENTORA DE LOS RESULTADOS DE CONTROL INTERNO DEL EJERCICIO 2019.

[...]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, aprobar la Cuenta General del Presupuesto del año 2019 con el contenido que se informó en la Comisión Especial de Cuentas, sin modificaciones.

Remitir la Cuenta General del año 2019 al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas para su fiscalización.

3.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS BASES REGULADORAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA IMPLANTACION Y PUESTA EN MARCHA DE PROYECTOS EMPRESARIALES EN EL MUNICIPIO DE SOPUERTA 2020.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar las Bases Reguladoras de la Concesión de Subvenciones para la implantación y puesta en marcha de proyectos empresariales en el municipio de Sопuerta en 2020 y anunciar la convocatoria.

4.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS BASES REGULADORAS DE CONCESION DE SUBVENCIONES PARA LA CONTRATACION DE PERSONAS TRABAJADORAS POR CUENTA AJENA DEL MUNICIPIO DE SOPUERTA 2020.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar las Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la contratación de personas trabajadoras por cuenta ajena del municipio de Sopuerta 2020 y anunciar la convocatoria mediante publicación de las Bases en el Boletín Oficial de Bizkaia y página web municipal.

5.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS BASES REGULADORAS DE LA SUBVENCION DIRECTA A CORAL ATXASPE. EJERCICIO 2020.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes: Aprobar las Bases reguladoras de la subvención directa a la Coral Atxaspe en el ejercicio 2020.

6.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE ASESORIA I. GORDOBIL S.L. POR FACTURAS PRESENTADAS SIN EXISTIR PREVIO CONTRATO.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, abonar a la mercantil Asesoría Idoia Gordobil, S.L. las facturas pendientes de pago y que se corresponden con los meses de mayo, junio, julio y agosto de 2020 por servicios realizados y sobre los que no existe contrato.

7.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE TAYFER 2002, S.L. POR FACTURAS PRESENTADAS SIN EXISTIR PREVIO CONTRATO.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar las facturas pendientes de pago a la mercantil Tayfer 2002 S.L. por suministros entregados y servicios prestados sin existir previo contrato.

8.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES S. L. POR FACTURAS PRESENTADAS SIN EXISTIR PREVIO CONTRATO.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar las facturas pendientes de pago a la mercantil Urbegui Servicios Auxiliares S.L. por servicios prestados sin existir previo contrato.

9.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE CONTENEDORES OTXARAN S.L. POR FACTURAS PRESENTADAS SIN EXISTIR PREVIO CONTRATO.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar las facturas pendientes de pago a la mercantil Contenedores Otxaran S.L. por los servicios prestados sin existir previo contrato.

10.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE CANTERA LACILLA S.L. POR FACTURAS PRESENTADAS SIN EXISTIR PREVIO CONTRATO.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar las facturas pendientes de pago a la mercantil Cantera Lacilla por servicios prestados sin existir previo contrato.

[...]

11.- DAR CUENTA DEL PERIODO MEDIO DE PAGO GLOBAL A PROVEEDORES, CORRESPONDIENTE AL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2020.

[...]

Dada cuenta al Pleno, se dan por enterados.

12.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA PROPUESTA DE ORDENANZA MUNICIPAL DE USO DE LA VIA VERDE MONTES DE HIERRO BURDINMENDI.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes:

Aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal de uso de la Vía Verde Montes de Hierro Burdinmendi y someterla a información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días, mediante la publicación de Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la página web del Ayuntamiento.

En el caso de que se presentasen reclamaciones o sugerencias dentro del plazo serán resueltas por el Pleno que otorgará la aprobación definitiva. En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada de forma automática entendiendo definitivo el acuerdo de aprobación hasta entonces provisional, de conformidad con el art. 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Tras la aprobación definitiva, el texto íntegro de la Ordenanza se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia entrando en vigor tras esta publicación.

13.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA ACTUALIZACION DEL CONVENIO DE COLABORACION ENTRE ENKARTERRIALDE Y LOS AYUNTAMIENTOS DE ARTZENTALES, ABANTO –ZIERBENA, GALDAMES, MUSKIZ Y SOPUERTA, PARA EL DESARROLLO DEL PLAN ESTRATEGICO DE LA VIA VERDE MONTES DE HIERRO, DEL RECURSO GENERADOR DE EMPLEO Y RIQUEZA 2017-2021, EN FUNCION DEL PLAN DE GESTION VIA VERDE 2020 MODIFICADO TRAS LA SITUACION GENERADA POR EL COVID 19.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes aprobar la actualización del Convenio de Colaboración suscrito entre Enkarterrialde y los Ayuntamientos de Artzentaies, Abanato-Zierbena, Galdames, Muskiz y Sopuerta para el desarrollo del Plan Estratégico de la Vía Verde Montes de Hierro del recurso generador de empleo y riqueza 2017-2021 en función del Plan de Gestión Vía Verde 2020 modificado tras la actuación generada por el Covid 19.

[...]

14.- APROBACION, SI PROCEDE, PARA LA MODIFICACION DEL INVENTARIO MUNICIPAL CONFORME A ESCRITURA DE DONACION DE LOS HERMANOS ECHEVARRIA RUBIO AL AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes:

Dar de Alta en el Inventario de Bienes Inmuebles Municipales los bienes donados por parte de los Hermanos Echevarría Rubio de conformidad con la descripción y valoración, que consta en los informes del Arquitecto D. Jesús Cañada Merino nº 46/

2017 de 10 de octubre de 2017 y nº 47/2017 de 10 de octubre y que se corresponde con la siguiente:

1.- Urbana. Terreno en el Barrio de La Baluga. Según la Escritura Pública, Inscrita en el Registro de la Propiedad como la Finca 893 del Tomo 871; Libro 53, Folio 164.

Descripción: Parcela con una superficie de 554,04 mts² de suelo urbano residencial, incluido en la delimitación de la Unidad de Ejecución Residencial 8 (U.E.R. 8) de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.

Linderos: Norte con pertenecidos de La Baluga nº 18 y con aparcamientos municipales, Sur con calle La Baluga y pertenecidos de La Baluga nº 12, Este con pertenecidos de La Baluga nº 12 y Oeste con pertenecidos de La Baluga nº 18.

Superficie real: 554 mts².

Uso: Suelo Urbano Residencial incluido en la delimitación de la Unidad de Ejecución Residencial 8.

Adquisición: Donación.

Dotación: Saneamiento, Agua Potable, Alumbrado Público, Red de Telefonía, Red de Energía Eléctrica, Viales de Carretera Foral y Camino Público municipal asfaltados.

Valoración del Suelo: 311.038,39 €.

Finca Catastral número U4212548Q, La Baluga nº 16, y valor suelo según catastro de 15.627,18 €.

2.- Parcela en el Crucero de los Cotarros. Según la Escritura Pública, dos parcelas registrales Inscritas como fincas 2150 y 460 del Tomo 871, Libro 53, Folios 163 y 162 respectivamente.

Se corresponden con la parcela 180 del polígono 5 del Catastro de Rústica de Sopuerta y tiene una superficie de 852 mts². En la finca 2150 existía una tejavana en estado ruinoso, hoy derribada, con una superficie de terreno según el Catastro de Bizkaia de 685 mts² y se corresponde con la parcela 180 del polígono 5 al paraje Los Cotarros. Y la finca 460 donde se implantaba una casa de 167 mts² en ruinas, hoy también derribada, según el Catastro parcela 229 del polígono 5, con una superficie de 167 mts².

En consecuencia, la descripción y la valoración de los terrenos municipales para la actualización del Inventario Municipal es la siguiente:

Descripción: Parcela 180 del Polígono 5 del Catastro de Rústica de Sopuerta de 852 mts2, de un uso improductivo desde el punto de vista agrícola. En la actualidad se subdivide en parcela 180 del polígono 5 propiedad al 100% del Ayuntamiento de Sopuerta con una superficie de 685 mts2 y con un valor catastral de la parcela de 632,43 € y la parcela 229 del polígono 5, con una superficie de 167 mts2 propiedad del 85,714286 % del Ayuntamiento de Sopuerta donde había una construcción hoy derribada y con un valor de 0 €.

Linderos: Norte con Carretera Foral BI-2701 y Miguel Basilio Sanjines; Sur, Camino de Uso Público, Este Miguel Benito Basilio Sanjines y Ayuntamiento de Sopuerta (parcela 202) y Oeste, con Carretera Foral BI-2701.

Superficie: 852 mts2.

Uso: Núcleo Rural-Improductivo.

Adquisición: Donación.

Dotación: Saneamiento, Agua Potable, Alumbrado Público, Red de Telefonía, Red de Energía Eléctrica, Viales de Carretera Foral y Camino Público municipal asfaltado.

Valoración del Suelo: 62.211,24 €.

15.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS CRITERIOS DE SELECCIÓN PLAN DE EMPLEO TITULARES Y NO TITULARES DE RGI.

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar los criterios de selección del Plan de Empleo Titulares y no titulares de RGI presentados para las ayudas del Plan de Acciones Locales para la promoción del empleo.

PARTE DEDICADA A CONTROL.

16.- DAR CUENTA SUCINTA DE LAS RESOLUCIONES DICTADAS DESDE LA ULTIMA SESION PLENARIA.

[...]

Dada cuenta se dan por enterados.

MOCIONES.

17.- RESOLVER LA SOLICITUD DE D. E. F. C. DE MODIFICACION DEL GRUPO DE CLASIFICACIÓN DEL ALGUACIL PARA SU INTEGRACION EN

**EL GRUPO C SUBGRUPO C1 COMO AGENTE DE POLICIA LOCAL
INCLUIDO EN EL PLENO A PETICION DE EH BILDU.**

[...]

D. Agustín Cuadrado de EH Bildu, hace entrega y da lectura a escrito de su grupo a los miembros de la Comisión con el siguiente texto:

“El Grupo Municipal de EH Bildu del Ayuntamiento de Sopuerta, propone para su inclusión en el orden del día del pleno a celebrar el 24 de septiembre de 2020 el siguiente

ACUERDO

PRIMERO.- Aprobar la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) del Ayuntamiento de Sopuerta, consistente en la modificación del puesto del Alguacil, en concreto se modifique el Grupo de adscripción, debiendo consignarse el C1 y el Complemento Específico.

SEGUNDO.-Publicar la Relación de Puestos de Trabajo en el Boletín Oficial de Bizkaia, para general conocimiento y facilitar a la sra. Alcaldesa para la adopción de las medidas necesarias para llevar a efecto este acuerdo.”

[...]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, denegar la solicitud de D. E. F. C. de modificación del Grupo de Clasificación para su integración en el Grupo C, Subgrupo C1 como agente de policía local, en base a la Disposición Transitoria Novena de la Ley 7/2019, de 27 de junio, de quinta modificación de la Ley de Policía del País Vasco, que regula la integración de los alguaciles en los Cuerpos de Policía Local, en el momento de crearse el cuerpo de policía local, motivos expuestos en los informes jurídicos de la Secretaria- Interventora nº14/2020 de 3 de abril y el Informe Jurídico nº 51/2020, de 16 de septiembre.

**18.- MOCION DE EH BILDU: 25 DE NOVIEMBRE, DIA
INTERNACIONAL DE LA ELIMINACION DE LA VIOLENCA CONTRA LAS
MUJERES. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL.**

Comienza el debate de este asunto, dando lectura íntegra por la alcaldesa-presidenta del texto de la moción que ha sido entregado a los asistentes por el grupo municipal de EH Bildu:

“La crisis brutal que ha sacudido nuestra sociedad este año ha puesto en evidencia que la vida es vulnerable y que su cuidado debe ser nuestra prioridad. Algo que saben muy bien las miles de

mujeres que sufren violencia machista, una pandemia que lleva demasiado tiempo entre nosotras y nosotros.

La violencia machista es una forma de violencia estructural, presente en todos los ámbitos y sectores, también en las instituciones. Es totalmente inaceptable y no tendremos en nuestro pueblo paz ni normalización mientras se siga asesinando y ejerciendo violencia hacia las mujeres por el hecho de ser mujeres. Hoy, como instituciones públicas, debemos asumir compromisos concretos, y dar absoluta prioridad a este problema social y colectivo, sin excusa.

Por eso, el grupo de EH Bildu del Ayuntamiento de Sopuerta, presenta la siguiente declaración institucional para su debate y posterior aprobación en Sesión Plenaria.

MOTIVO:

Con motivo del 25 de noviembre, “Día internacional de la eliminación de la violencia contra las mujeres”, este Ayuntamiento de Sopuerta, asume su responsabilidad en garantizar que nuestro país, nuestros territorios, nuestros pueblos, sean espacios libres de toda forma de violencia machista, y reitera su necesario compromiso político prioritario en la lucha contra todas las expresiones de la misma y sus causas estructurales así como contra la normalización que la perpetua, teniendo como objetivo el necesario cambio del orden social patriarcal y el hacer realidad modelos de convivencia y relación entre mujeres y hombres basados en la justicia y la igualdad y en los que las mujeres se sientan libres.

Vivimos un momento excepcional, en el que la situación sanitaria ha acaparado todos los focos y nuestro modo de vida se ha visto profundamente afectado. Las personas en situación de vulnerabilidad se han visto especialmente afectadas, entre ellas las víctimas de violencia machista. Las situaciones que durante el confinamiento han sostenido las mujeres van a salir a la luz de manera más violenta, según todos los indicios. Por una parte, muchos servicios han visto alterado su funcionamiento, otros se han parado y otros han visto alterados recursos, de manera directa o indirecta. Por la otra, y como ya ocurrió en anteriores crisis, el mayor estrés social y la precariedad generalizada de la vida de las mayorías sociales va a traer un aumento de la violencia por parte de los agresores y una menor autonomía de las mujeres para tomar decisiones.

El confinamiento ha provocado, por una parte, una alteración en la prestación de los servicios y, por la otra, probables efectos psicológicos y de otro tipo en mujeres, niñas y niños que han visto interrumpidos sus procesos a la vez que sufrían diferentes formas y expresiones de violencia en casa. Ahora, es prioritario conocer de qué manera esta crisis ha afectado a las mujeres, sus hijas e hijos y otras personas disidentes sexo-genéricas, en términos de violencia machista, qué nuevas formas han surgido, qué patrones han cambiado, qué expresiones han aumentado...Es probable que aumente la necesidad de atender casos más complejos en los que la violencia machista interactúa con otros elementos de exclusión o violencia. Porque además de la violencia ejercida por parejas, exparejas u otros hombres de forma directa sobre las mujeres, durante esta crisis aumentarán otro tipo de violencias como la económica. Es nuestro deber como instituciones garantizar que todas las mujeres y sus hijas e hijos reciben la atención más adecuada a su situación.

La crisis no puede ser excusa para congelar o recortar presupuestos. La pandemia de la violencia machista debe seguir siendo una prioridad y, por lo tanto, debemos comprometer todos los recursos que sean necesarios para seguir trabajando la prevención, adecuar la atención a la situación actual y no dejar de lado la reparación. Solo poniendo en marcha iniciativas integrales que actúen sobre la raíz del problema, se podrá conseguir avanzar en su erradicación.

Y, como siempre, debemos hacerlo de la mano del movimiento y de expertas feministas. Las mismas que desde el primer momento de la crisis han alzado la voz exigiendo que se atendiera a las mujeres y sus hijas e hijos que confinadas estaban en situación de peligro y que no se

perdieran de vista los efectos diferenciados que tendría en las mujeres una vez llegara el desconfinamiento.

Recordamos, asimismo, las 4 mujeres que han sido asesinadas este año en Euskal Herria, todas durante los meses de confinamiento. Debemos seguir trabajando, todas las personas, para que esto no vuelva a ocurrir. Es una grave realidad social que nos interpela a todas, no podemos ni debemos mirar a otro lado. Las instituciones tenemos una responsabilidad particular para ello.

Por ello, en este día internacional contra la violencia machista, queremos dar a conocer de una manera firme nuestras reivindicaciones en favor de una Euskal Herria feminista, justa y equitativa, asumiendo, en la construcción de ese camino, los siguientes compromisos:

PROPUESTA:

- 1. Este Ayuntamiento de Sopuerta hace suyo el protocolo de respuesta a la violencia machista impulsado por la Marcha Mundial de las Mujeres.*
- 2. Este Ayuntamiento de Sopuerta, en colaboración con colectivos feministas y grupos de mujeres, realizará un estudio sobre el impacto de la crisis de la COVID19 en las mujeres y las nuevas formas que haya podido adoptar la violencia machista, con recomendaciones para el diseño de acciones adecuadas de prevención, atención y reparación.*
- 3. Este Ayuntamiento de Sopuerta, en base al estudio realizado, pondrá en marcha /reforzará las medidas/programas/servicios que sean necesarias para atender adecuadamente a las mujeres, sus hijas e hijos.*
- 4. Este Ayuntamiento de Sopuerta, no realizará ningún recorte en los presupuestos de igualdad de 2021 y aumentará todas las partidas que sean necesarias para garantizar la ejecución, seguimiento y evaluación de las acciones identificadas en el punto anterior. Además, adopta el compromiso de estabilizar y reforzar las unidades de igualdad.*
- 5. Este Ayuntamiento de Sopuerta, velará porque todos los servicios concernidos (judicial, sanitario, social, policial, etc.) prioricen la respuesta a la violencia contra las mujeres, sus hijas e hijos, independientemente de la situación sanitaria, adaptando su respuesta a esta.*
- 6. Este Ayuntamiento de Sopuerta, velará por un refuerzo de coordinación interinstitucional y trabajo en equipo entre profesionales y áreas que trabajan para la erradicación de las violencias machistas garantizando la sistematización y adecuada difusión de la ruta de atención.*
- 7. Este Ayuntamiento de Sopuerta, velará por un reforzamiento de los mecanismos de alerta de emergencia para agilizar y garantizar la respuesta en casos de urgencia.*
- 8. Pondrá en marcha en Sopuerta un Observatorio contra la Violencia Machista o espacio similar que cumpla las funciones de: visibilización de todas las violencias machistas por parte de todos los actores que la ejercen y de todas las personas que la sufren; recogida de todos los casos de violencia machista en un registro unificado; e investigación y análisis de todas las violencias machistas y sus impactos en las vidas de las mujeres.*
- 9. Este Ayuntamiento de Sopuerta, apoyará las redes locales de ciudadanos que surgieron durante la pandemia así como, en general, el trabajo de los colectivos populares, para el refuerzo e impulso de acciones comunitarias de prevención y sensibilización en torno a las violencias machistas, adaptadas a la situación actual.*
- 10. Este Ayuntamiento de Sopuerta, emplaza a la Diputación Foral y Emakunde / Instituto Navarro para la igualdad a no realizar ningún recorte en el presupuesto de 2021 y a ampliar las partidas presupuestarias en materia de igualdad entre mujeres y hombres, particularmente en aquellos ámbitos considerados de especial impacto por efecto de la crisis de la COVID19.*
- 11. Este Ayuntamiento de Sopuerta, pondrá en marcha campañas de denuncia y prevención de las violencias machistas que incluyan evaluación de impacto y dirigidas a diferentes ámbitos como los medios de comunicación, empresas y o centros educativos.*

12. *Este Ayuntamiento de Sopuerta, elaborará estrategias de prevención y respuesta a la ciberviolencia y el ciberacoso, en respuesta al análisis de la situación actual de las violencias machistas.*
13. *Este Ayuntamiento de Sopuerta, destinará recursos para que la población, y especialmente las mujeres, dispongan de información sobre los recursos existentes.*
14. *Este Ayuntamiento de Sopuerta, asegurará / emplaza a asegurar el carácter público, gratuito y no discriminatorio de todos los recursos, servicios y procedimientos tanto administrativos como judiciales que tengan que ver con la violencia machista.*
15. *Este Ayuntamiento de Sopuerta emplaza a garantizar /garantizará el establecimiento de espacios sostenibles, adaptados a la situación de crisis, para la puesta en marcha de actividades de empoderamiento dirigidas a niñas, jóvenes y mujeres adultas en temas como las relaciones de pareja y sexo-afectivas, el amor romántico, las sexualidades libres, etc., incluyendo la realización de talleres de autodefensa feminista para adolescentes y niñas a partir de 10 años, de una manera continuada y sostenida en el tiempo.*
16. *Este Ayuntamiento de Sopuerta, emplaza a garantizar / garantizará la puesta en marcha de espacios y procesos educativos y formativos dirigidos a adolescentes y jóvenes, adaptados a la situación de crisis, para trabajar la educación afectivo sexual, desnaturalizar las múltiples expresiones de las violencias machistas, trabajar el consentimiento afirmativo y, en general, las relaciones en igualdad entre mujeres y hombres.*
17. *Este Ayuntamiento de Sopuerta, adopta el compromiso de trabajar específicamente con hombres jóvenes y adultos aspectos como la efectividad, las formas de relacionarse, los modelos de masculinidad, la superación de roles sexistas y la equidad; y adopta el compromiso de activar programas dirigidos a tal fin.*
18. *Este Ayuntamiento de Sopuerta emplaza a garantizar/ garantizará la puesta en marcha de programas sostenidos en el tiempo, adaptados a la situación de crisis, para trabajar el derecho a la reparación en sus múltiples aspectos como la difusión de la verdad, la indemnización, el acompañamiento social o la garantía de no repetición con acciones como; protocolos dirigidos a diferentes ámbitos, recuperación de la memoria histórica, homenajes, jornadas, talleres, cineforums, investigaciones, acciones de visibilización como nombres de calles, etc.*
19. *Este Ayuntamiento de Sopuerta insta a los Parlamentos Vasco y Navarro a crear una mesa de interlocución con diferentes agentes políticos, sindicales, sociales, educativos etc. Para la consecución de un Pacto Social Vasco contra las violencias machistas.*
20. *Desde esta institución, Ayuntamiento de Sopuerta, reafirmamos nuestro compromiso con la lucha feminista, como vía y herramienta principal para la construcción de una sociedad democrática sin violencias.*
21. *Nos adherimos a las movilizaciones convocadas por el movimiento feminista para el día 25 de noviembre, hacemos un llamamiento a toda la sociedad para que participe en ellas.”*

[...]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación no aprobar la moción presentada.

RUEGOS Y PREGUNTAS.

19.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

2020ko IRAILAREN 24ko 3/2020 ZENBAKIKO OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

AKTA

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA (2020ko UZTAILAREN 15ean EGINIKO 4/20 ZENBAKIKOA).

[...]

Bertaratuek aho batez berretsi dute 2020ko uztailaren 15eko 4/20 zenbakiko ezohiko bilkuraren akta, inolako zuzenketarik egin gabe.

EBAZPENAK.

2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA, ETA 2019KO EKITALDIKO BARNE-KONTROLEKO EMAITZEN KONTU-HARTZAILEAREN URTEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz adostu da 2019ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onestea, Kontuen Batzorde Berezian jakinarazi zen edukiarekin, aldaketarik egin gabe.

2019ko kontu orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bidaltzea, fiskalizatu dezan.

3.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTA UDALERRIAN 2020an ENPRESA-PROIEKTUAK EZARRI ETA ABIAN JARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute Sopuertako udalerrian 2020an enpresa-proiektuak ezarri eta abian jartzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onestea eta deialdia iragartzea.

4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTA UDALERRIAN 2020an BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute Sopuertako udalerrian 2020an besteren konturako langileak kontratatzeke dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onestea, eta deialdia iragartzea. Horretarako, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ATXESPE ABESBATZARI DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. 2020 EKITALDIA.

[...]

Bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute: Atxespe abesbatzari 2020 ekitaldian dirulaguntza zuzena emateko oinarri arautzaileak onestea .

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ASESORIA I. GORDOBIL SLren ALDEKO KREDITUEN EPAIKETAZ KANPOKO AITORPENA, AURKEZTUTAKO FAKTUREN ARABERA, AURRETIK KONTRATURIK EGON GABE.

[...]

Bertaratuek aho batez adostu dute Asesoría Idoia Gordobil, SL merkataritza-sozietateari ordaintzea 2020ko maiatza, ekaina, uztaila eta abuztuan eman dituzten eta kontraturik ez duten zerbitzuengatik ordaindu gabe dauden fakturak.

7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, TAYFER 2002 SLren ALDEKO KREDITUEN EPAIKETAZ KANPOKO AITORPENA, AURKEZTUTAKO FAKTUREN ARABERA, AURRETIK KONTRATURIK EGON GABE.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute Tayfer 2002 SL merkataritza-sozietateari ordaindu gabeko fakturak onestea, entregatutako hornidurengatik eta emandako zerbitzuengatik, aldeztu aurretik kontraturik egin gabe.

8.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES SLren ALDEKO KREDITUEN EPAIKETAZ KANPOKO AITORPENA, AURKEZTUTAKO FAKTUREN ARABERA, AURRETIK KONTRATURIK EGON GABE.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute Urbegui Servicios Auxiliares SL merkataritza-sozietateari ordaindu gabeko fakturak onestea, emandako zerbitzuengatik, aldez aurretik kontraturik egin gabe.

9.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, CONTENEDORES OTXARAN SLren ALDEKO KREDITUEN EPAIKETAZ KANPOKO AITORPENA, AURKEZTUTAKO FAKTUREN ARABERA, AURRETIK KONTRATURIK EGON GABE.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute Contenedores Otxaran SL merkataritza-sozietateari ordaindu gabeko fakturak onestea, emandako zerbitzuengatik, aldez aurretik kontraturik egin gabe.

10.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, CANTERA LACILLA SLren ALDEKO KREDITUEN EPAIKETAZ KANPOKO AITORPENA, AURKEZTUTAKO FAKTUREN ARABERA, AURRETIK KONTRATURIK EGON GABE.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute Cantera Lacilla SL merkataritza-sozietateari ordaindu gabeko fakturak onestea, emandako zerbitzuengatik, aldez aurretik kontraturik egin gabe.

[...]

11.- HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPE OROKORRAREN BERRI EMATEA, 2020ko BIGARREN HIRUHILEKOARI DAGOKIONA.

[...]

Udalbatza Osoari horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

12.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BURDINMENDIKO BIDE BERDEA ERABILTZEKO UDAL ORDENANTZAREN PROPOSAMENA.

[...]

Bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute:

Hasiera batean onestea Burdinmendiko bide berdea erabiltzeko Udal Ordenantza eta jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, gutxienez hogeita hamar eguneko epean. Hori horrela, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Epe barruan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten bada, Udalbatzak ebatziko ditu, eta behin betiko onetsiko du. Inongo erreklamazio edo iradokizunik egiten ez bada, automatikoki behin betiko onetsita geratuko da ordura arte behin-behinekoa zen onespena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Behin betiko onetsi ostean, Ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarrean jarriko da horren ostean.

13.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ENKARTERRIALDEREN ETA ARTZENTALES, ABANTO ZIERBENA, GALDAMES, MUSKIZ ETA SOPUERTAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN EGUNERATZEA, BURDINMENDIKO BIDE BERDEARI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEKO, 2017-2021 ENPLEGUA ETA ABERASTASUNA SORTZEN DUEN BALIABIDEARI BURUZKOA, BIDE BERDEA 2020 KUDEAKETA-PLANAREN ARABERA (PLAN HORI ALDATU EGIN DA COVID 19ak SORTUTAKO EGOERAREN OSTEAN).

[...]

Bertaratuek aho batez adostu dute Enkarterrialderen eta Artzentales, Abanto Zierbena, Galdames, Muskiz eta Sopusertako Udalen arteko lankidetzahitzarmenaren eguneratzea, Burdinmendiko bide berdeari buruzko plan estrategikoa garatzeko, 2017-2021 enplegua eta aberastasuna sortzen duen baliabideari buruzkoa, Bide Berdea 2020 kudeaketa-planaren arabera (plan hori aldatu egin da Covid19ak sortutako egoeraren ostean).

[...]

14.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, UDAL INBENTARIOAREN ALDAKETA, ECHEVARRIA RUBIO ANAIEK SOPUERTAKO UDALARI EMANDAKO DONAZIOAREN ESKRITURAREN ARABERA.

[...]

Bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute:

Echevarría Rubio anaiak emandako ondasunei Udal Ondasun Higiezin Inbentarioan alta ematea, Jesús Cañada Merino arkitekto jaunaren 2017ko urriaren 10eko 46/2017 eta urriaren 10eko 47/2017 txostenetan jasotako deskribapenarekin eta balorazioarekin bat etorritik. Honako hauek dira:

1.- Urbano. Lurra La Baluga auzoan. Eskritura publikoaren arabera, Jabetza Erregistroan 871. liburukiko, 53. liburuko eta 164. orrialdeko 893. lursail gisa inskribatua.

Deskribapena: 554,04 metro karratuko azalera duen lursaila, bizitegitarako hiri-lurzoruan dagoena, Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako 8. Bizitegi Egikaritze Unitatearen (8. B.E.U.) mugaketaren barruan.

Mugak: Iparraldean La Baluga 18ren jabetzak eta udal-aparkalekuak, hegoaldean La Baluga kalea 12 eta haren jabetzak, ekialdean La Baluga 12 eta mendebaldean La Baluga 18ren jabetzak.

Benetako azalera: 554 metro karratu.

Erabilera: Bizitegitarako hiri-lurzorua, 8. Bizitegi Egikaritze Unitatearen mugaketaren barruan.

Eskuratzea: Donazioa.

Hornidura: Saneamendua, edateko ura, argiteria publikoa, telefonia-sarea, energia elektrikoaren sarea, foru-errepideko bideak eta udal-bide publiko asfaltatuak.

Lurzoruaren balorazioa: 311.038,39 €.

U4212548Q katastro-lursaila, La Baluga 16, katastroaren arabeko lurzorua balioa: 15.627,18 €.

2.- Crucero de los Cotarrosen dagoen lursaila. Eskritura Publikoaren arabera, 871. liburukiko, 53. liburuko, 163. eta 162. orrialdeetako (hurrenez hurren) 2150. eta 460. lursail gisa inskribatutako bi erregistro-partzela.

Sopuertako Landa Katastroko 5. poligonoko 180. partzelari dagozkio eta 852 metro karratuko azalera du. 2150 lursailean, hondatutako teilape bat zegoen, gaur egun eraitsita dagoena, Bizkaiko Katastroaren arabera 685 metro karratuko lursail zeukana, eta 5. poligonoko 180. lursaila Los Cotarros parajeari dagokio. Eta 460 lursailak (betan 167 metro karratuko hondatutako etxe bat zegoen, gaur egun ere eraitsita dagoena), 5. poligonoko 229. lursaileko katastroaren arabera, 167 metro karratuko azalera dauka.

Horren ondorioz, udal inbentarioa eguneratzeko, udal lurren deskribapena eta balorazioa honako hau da:

Deskribapena: Sopuertako Landa Katastroko 5. poligonoko 180. partzela, 852 metro karratukoa eta nekazaritzaren ikuspegitik ez-emankorra. Gaur egun, 5. poligonoko 180. partzelaren jabetza Sopuertako Udalarena da % 100ean. Lursailak 685 metro karratuko azalera eta 632,43 €-ko katastro-balioar ditu. Hori horrela, 5. poligonoko 229. partzelaren jabetza Sopuertako Udalarena % 85,714286an eta lursailak 167 metro karratuko azalera dauka. Betan gaur egun eraitsitako eraikin bat zegoen eta 0 €-ko balioa dauka.

Mugak: Iparraldean BI-2701 foru-errepidea eta Miguel Basilio Sanjines; hegoaldean Erabilera Publikoko Bidea, ekialdean Miguel Benito Basilio Sanjines eta Sopuertako udaletxea (202. partzela) eta mendebaldean BI-2701 foru-errepidea.

Azalera: 852 metro karratu.

Erabilera: Landa nukleo ez-emankorra.

Eskuratzea: Donazioa.

Zenbatekoa: Saneamendua, edateko ura, argiteria publikoa, telefonia-sarea, energia elektrikoaren sarea, foru-errepideko bideak eta udal-bide publiko asfaltatuak.

Lurzoruaren balorazioa: 62.211,24 €.

15.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, DBEren TITULAR DIRENEN ETA EZ DIRENEN ENPLEGU-PLANAREN HAUTAKETA-IRIZPIDEAK.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute Enplegu Planaren hautaketa-irizpideak onestea; hau da, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen Planeko laguntzetarako aurkeztutako DBEren titularren eta ez-titularren hautaketa-irizpideak.

KONTROLAREN INGURUKO ZATIA.

16.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

[...]

Horren berri emanda, bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

MOZIOAK.

17.- E. F. C. JAUNAK AGUAZILAREN SAILKAPEN-TALDEA ALDATZEKO EGINDAKO ESKAERA EBAZTEA, C TALDEAN (C1 AZPITALDEA) SAR DADIN TOKIKO POLIZIAKO AGENTE GISA, OSOKO BILKURAN GEHITU DENA EH BILDUK ESKATUTA.

[...]

EH Bilduko Agustín Cuadrado jaunak bere taldearen idazkia irakurri die batzordekideei. Honako hau dio:

“Sopuertako Udaleko EH Bildu udal taldeak proposatu du 2020ko irailaren 24an egingo den osoko bilkuraren gai-zerrendan honako hau gehitzea:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Sopuertako Udaleko Lanpostu Zerrendaren aldaketa (LZ) onestea, aguazil lanpostua aldatzeari dagokiona; zehazki, atxikipen-taldea egokitu behar da, eta C1a eta berariazko osagarria esleitu behar zaizkio.

BIGARRENA.-Lanpostu Zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, denek jakin dezaten eta alkate andreari erraztasunak ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezko neurriak har ditzan.

[...]

Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoz erabaki da E. F. C. jaunak egindako eskaera ezestea, hau da, C taldean, C1 azpitaldean, udaltzaingo gisa sartzeko sailkapen-taldea aldatzea bera udaltzaingo izateko. Horretarako oinarria honako hau izan da: Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketa ezartzen duen ekainaren 27ko 7/2019 Legearen bederatzigarren xedapen iragankorra. Xedapen horrek aguazilak Udaltzaingoa sartzeari arautzen du Udaltzaingoa sortzen den unean. Arrazoi horiek apirilaren 3ko 14/2020 idazkari kontu-hartzailearen txosten juridikoetan eta apirilaren 16ko 51/2020 txosten juridikoan azaldu dira.

18.- EH-BILDUren MOZIOA: AZAROAK 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA. ERAKUNDE-ADIERAZPENA.

Gai honen inguruko eztabaida hastean, alkate-udalburuak EH-BILDU udal-taldeko bertaratuak entregatutako mozioaren testua irakurri du.

“Gure gizartea astindu duen krisialdi sozial honek agerian utzi du gure bizitza oso ahula dela eta hori zaintzea gure lehentasuna izan behar dela. Hori oso ongi dakite indarkeria matxista pairatzen duten milaka emakumeek; izan ere, hori da gure artean denbora gehiegi daraman pandemia.

Indarkeria matxista egiturazko indarkeria-modu bat da, eta sektore, arlo eta erakunde guztietan dago. Ezin da inolaz ere onartu eta ez dugu gure herrian ez bakerik ez normaltasunik izango emakumeek, emakume izate hutsagatik, indarkeria pairatzen jarraitzen badute. Gaur, erakunde publiko gisa, konpromiso zehatz batzuk hartu beharko genituzke, eta, era berean, arazo sozial eta kolektibo honi lehentasuna eman, inongo aitzakiarik gabe.

Horrenbestez, Sopuertako Udaleko EH-Bildu udal-taldeak honako erakunde-adierazpena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatu eta onetsi dadin.

ARRAZOIA:

Azaroaren 25a, “Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna”, dela eta, Sopuertako Udalak bere gain hartzen du gure herrialdea, lurraldeak eta herriak indarkeria matxistarik gabeko eremu libreak izatea bermatzeko ardura. Era berean, azpimarratu egiten du beharrezkoa dela lehentasunezko konpromiso politikoa hartzea indarkeria matxistaren adierazpen eta egiturazko kausa guztien aurkako borrokan, baita hori mantentzen duen normalizatzearen aurkako borrokan ere. Udalaren helburu nagusia gizarteko egitura patriarkala aldatzea izango da, errealitate bihurtzeko justizian eta berdintasunean oinarritutako emakumeen eta gizonen arteko bizikidetzak eta harreman-ereduak zein emakumeak libre izateko.

Ezohiko egoera bizi dugu; osasun-egoerak gure arreta osoa erakarri du eta gure bizitzeko modua erabat aldatu da. Egoerak bereziki kaltetu ditu zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak, horien artean, indarkeria matxistaren biktimak. Konfinamenduan zehar emakume askok jasan dituzten egoerak modurik bortitzenean aterako dira argitara, hala diote seinale guztiek. Alde batetik, zerbitzu askoren funtzionamendua aldatu egin da, batzuk erabat eten dira, eta beste askok aurretik zituzten baliabideak galdu dituzte, modu zuzenean edo zeharkakoan. Bestalde, eta aurreko krisialdian gertatu bezala, gizartearen estresa handitu izateagatik eta gizartearen gehiengo bizi-prekaritate orokorragatik, indarkeria matxista areagotu egingo da erasotzaileen aldetik eta emakumeek erabakiak hartzeko autonomia txikiagoa izango dute.

Konfinamenduak eragin du zerbitzuak emateko modua aldatu behar izatea, baina, aldi berean, etxean indarkeria hainbat modu eta bideren bitartez pairatzeagatik zituzten prozesuak eten egin zaizkie haur eta emakume askori, eta horrek, ziurrenik, kalte psikologikoak eragingo ditu. Edonola ere, gure lehentasuna da jakitea krisialdiak nola eragin dien emakumei zein horien seme-alabei edo pertsona sexu-generiko disidenteei, indarkeria matxistari dagokionez; jakin behar dugu zein modu berri sortu den, zein patroi aldatu den, zein jokaera ugaritu den... Ziurrenik, kasu konplexuak hartzeko beharra izango dugu, non indarkeria matxista beste indarkeria- edo baztertzeko-modurekin nahasita egongo den. Izan ere, bikotekideak, bikotekide ohiak edo beste edozein gizonek emakumeenganako eragindako indarkeriaz gain, krisialdi honetan beste indarkeria modu askoren maila igoko da, adibidez, indarkeria ekonomikoarena. Erakunde gisa, bermatu beharko genuke emakume guztiek eta beren seme-alabek duten egoeraren arabera arreta egokiena jasotzen dutela.

Krisialdia ezin da aitzakia izan aurrekontuak izozteko edo horietan murrizketak egiteko. Indarkeria matxistaren pandemiak gure lehentasuna izan behar du. Ondorioz, beharrezko baliabide guztiak jarri behar ditugu mahai gainean, prebentzioa lantzen jarraitzeko eta arreta egungo egoerara egokitzeko, erreparazioa alde batera utzi gabe. Arazoaren erroan lan egiten duten ekimen integralak jarri behar ditugu abian, horrela bakarrik lortuko dugulako arazoa ezabatzeko prozesuan aurrera egitea.

Eta, beti bezala, mugimendu eta aditu feministekin batera egin beharko dugu. Izan ere, horiek izan dira krisialdiaren lehenengo momentutik eskatu dutenak emakumei eta horien seme-alabei arreta emateko, konfinaturik egotean arrisku larrian zeudelako. Hasiera-hasieratik eskatu dute deskonfinamendura iristean, emakumeengan horrek izango zituen eragin ezberdinak kontuan hartzeko.

Halaber, gogoan izan nahi ditugu aurten Euskal Herrian erail dituzten 4 emakumeak, guztiak konfinamenduan iraun bitarteko hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, guztiok, horrelakorik berriz ez gertatzeko. Emakume guztiak barne hartzen gaituen errealitate sozial latza da, ezin dugu alde batera utzi. Erakundeek, gainera, horrekiko ardura zehatza dugu.

Horregatik guztiagatik, emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako egunean, irmoki jakinarazi nahi ditugu Euskal Herria feminista, justu eta bidezko baten alde ditugun aldarrikapenak; eta, betiere, bide hori sortzean, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

PROPOSAMENA:

1. Sopuertako Udalak bere egiten du Emakumeen Munduko Martxak sustatutako indarkeria matxistarekiko erantzun-protokoloa.
2. Sopuertako Udalak, kolektibo feminista eta emakume-taldeekin elkarlanean, COVID-19aren krisialdiak emakumeengan izandako eragina aztertzeke ikerketa bat egingo du. Horretan, indarkeria matxistak hartu izan ditzakeen modu berriak ere aztertuko dira eta prebentzio, arreta eta erreparaziorako egokiak diren ekintzak diseinatzeko gomendioak egingo ditu.
3. Sopuertako Udalak, egindako ikerketa oinarri hartuta, abian jarriko ditu/indartu egingo ditu emakumeei zein horien seme-alabei arreta behar bezala emateko zerbitzuak/neurriak/ programak.
4. Sopuertako Udalak ez du inongo murrizketarik egingo 2021eko berdintasun-aurrekontuetan eta aurreko puntuan adierazitako ekintzak gauzatzea, horien jarraipena eta ebaluatzea bermatzeko beharrezko partida guztiak handituko ditu. Horrez gain, berdintasun-unitateak egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
5. Sopuertako Udalak bermatu nahiko du ematen diren zerbitzu guztiak (epaitegi-, osasun-, gizarte-, polizia-zerbitzuak, etab.) lehentasuna ematen diotela emakumeenganako zein beren seme-alabenganako indarkeriari erantzutea, osasun-egoera dena delakoa dela; ematen duten erantzuna egoerara egokitu beharko dute. Sopuertako Udala indartzen saiatuko da erakundeen arteko koordinazioa eta indarkeria matxista ezabatzeko lan egiten duten profesional eta arloen arteko lankidetzak. Gainera, arretarako bidea behar bezala sistematizatu eta zabaltzen dela bermatuko du.
6. Sopuertako Udala larrialdi-alertaren mekanismoak indartzen saiatuko da, larrialdi-egoeratan erantzuna azkartu eta bermatzeko.
7. Indarkeria Matxistaren aurkako Behatoki edo antzeko espazio bat jarriko da abian Sopuertan, honako funtzio hauek betetzeko: indarkeria matxista gauzatzen eta pairatzen duten pertsona guztien indarkeria matxista guztiak agerian jartzea; erregistro bateratu batean indarkeria matxistako kasu guztiak jasotzea; eta, azkenik, indarkeria matxista guztien inguruko analisia eta azterketa egitea, eta horiek emakumeen bizitzetan duten eragina ikertzea.
8. Sopuertako Udalak pandemian zehar sortutako herritarren tokiko sareak babestuko ditu, baita, orokorrean, herriko kolektiboak ere; horrela, indarkeria matxisten inguruko prebentzio eta sentsibilizaziorako herriko ekintzak indartu eta sustatuko ditu, dugun egoerara egokituta.
9. Sopuertako Udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi/Berdintasunerako Nafarroako institutuari eskatuko die ez egiteko inongo murrizketarik 2021eko aurrekontuan. Gainera, eskatuko die emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko arloko aurrekontu-partidak handitzeko, bereziki, COVID-19aren krisialdiagatik talka gehien izan duten arloetan.
10. Sopuertako Udalak abian jarriko ditu indarkeria matxistak salatu eta prebenitzeko kanpainak. Horietan, barne hartuko dira hainbat arlotara (adibidez, komunikabideak, enpresak eta/edo hezkuntza-zentroak) bideratutako inpaktuaren ebaluazioak.

11. Sopuertako Udalak ziberindarkeria eta ziberjazarpena prebenitzeko eta horiei erantzuteko estrategiak osatuko ditu, indarkeria matxisten egungo egoeraren ikerketari erantzuteko.
12. Sopuertako Udalak baliabideak bideratuko ditu herritarrek, eta, bereziki, emakumeek, dauden bitartekoen inguruko informazioa izan dezaten.
13. Sopuertako Udalak bermatu egingo du/eskatu egingo du indarkeria matxistarekin loturaren bat duten administrazio- zein justizia-baliabide, zerbitzu eta prozedurak doakoak, publikoak eta ez diskriminaziozkoak izatea.
14. Sopuertako Udala bermatzen saiatuko da krisialdiaren egoerara egokitutako eremu jasangarriak sortzen, neskato, gazte eta emakume helduei zuzendutako ahalduntze-jarduerak abiarazteko, hainbat gairen inguruko lanketak egiteko (bikote-harremanak, harreman sexual-afektiboak, maitasun erromantikoa, sexualitate askeak, etab.). Era berean, autodefentsa feminista lantzeko ikastaroak egingo dira 10 urte baino gehiagoko neskato eta nerabeentzat; ikastaroak denboran zehar mantendu egingo dira eta jarraituak izango dira.
15. Sopuertako Udalak abian jarriko ditu gazte eta nerabeei zuzendutako hezkuntza- eta formakuntza-prozesu eta eremuak, betiere krisialdiaren egoerara egokituta. Horietan, hezkuntza afektibo-sexuala landuko da, indarkeria matxisten hainbat adierazpen normaltasuna ezabatuko da, baiezko baimena landuko da, eta, orokorrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-harremanak landuko dira.
16. Sopuertako udalak gizon gazte eta helduekin zehazki hainbat gai lantzeko konpromisoa hartzen du: afektibitatea, harremantzeko moduak, maskulinitate-ereduak, rol sexistak gainditzea eta ekitatea... Halaber, horretara bideratutako programak aktibatzeke konpromisoa hartzen du.
17. Sopuertako Udalak abian jarriko ditu denboran zehar mantenduko diren programak, krisialdiaren egoerara egokituta, erreparaziorako eskubidea lantzeko, horren hainbat aspektutan: egia zabaltzea, kalte-ordaina, laguntza soziala edota zerbait errepikatuko ez dela bermatzea. Azken hori bermatzeko, hainbat arlotara bideratutako protokoloak, memoria historikoa berreskuratzea, omenaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, zineforumak, ikerketak, ikusgarritasuna emateko ekintzak (kaleen izenak) eta abar egingo dira.
18. Sopuertako Udalak Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari eskatzen die hainbat agente politiko, sindikal, sozial, hezkuntzakoak, etab. batzen dituen mahai bat sortzeko. Horrela, indarkeria matxisten aurkako Euskal Gizarte-itun bat lortuko dugu.
19. Erakunde honek, Sopuertako Udalak, borroka feministarekin dugun konpromisoa berresten du, hori baita indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko ba eraikitzeke bide eta tresna nagusia.
20. Azaroaren 25erako mugimendu feministak deitu dituen mobilizazioekin bat egiten dugu, eta bertan pare hartzeko deia egiten diogu jendarte osoari.”

[...]

Beraz, Udalbatza osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du aurkeztutako mozioa gaitzestea.

ESKAERAK ETA GALDERAK.

19.- ESKAERAK ETA GALDERAK.